



Lurre Hurre

**Pertsona migranteen partaidetza bultzazeko proiektua
landa garapenaren bidez**



Lurre Hurre, etorkizuna ereiten 2020

Pertsona migranteen partaidetza bultzazeko proiektua landa garapenaren bidez

Lurre Hurre elkarteak urtebeteko iraupena izango duen formakuntza proiektu bat proposatzen du pertsona migranteentzat. Urte horretan zehar **nekazal lanbidea ikasteaz gain, euskal gizartean ezinbestekoak zaizkien gaiei inguruko formakuntza jasoko dute, hala nola, herritarron eskubide-betebeharrak, gizarte antolaketa eta elkarrekintza sozialak edo indarrean dagoen legedia**. Bestetik, pertsona migrante hauek gure **gizarte sarearen partaide integral izatea bultzatuko da, landa garapena eta baserri auzoak izanik lan-esparru nagusia.**

Etxebizitza



Nekazal lanen inguruko formakuntza



Ahalduntzean formakuntza



Ekintzailtza sozial eta kulturala



Zergatik uste dugu proiektua beharrezkoa eta positiboa dala?

Lur emankorren berpizkundera eta landa garapena beharrezkoak direlako

- Hainbat belaunaldietan ehundaka familia elikatu dituzten lur-zoruak, gaur egun, guztiz abandonatuta daude nekazal lanetarako. Bide ertzetan eta baserri inguruetan landuta zeuden lur emankorrak belardi eta sasi guneetan bilakatu dira.
- Hilzorian dagoen lehen sektoreak astindu baten beharra duelako. Momentu honetan bizitzen ari garen krisiak erakutsi digu, ezinbesteko jarduerak dela nekazaritza gure lurraldean elikagaiak eskuragai izateko. Beti ere, emergentzia egoeran dagoen ingurugiroa zainduz.
- Nekazal lur-eremuak berriro berrerabiltzen hastea, hurbileko nekazaritza ekologikoan bakarrik murgilduz, hainbat gaztek diru sarrera duin bat lortuz.



Gazte etorkinen egoera errazteko beharra dagoelako, lanbide bat irakatsiz eta laneratze prozesua lehen sektorean erraztuz

- Hainbat gazte ekintzaile, beraien sorterrietatik hona milaka kilometroko ibilbidea egin ostean ilusioz eta ametez beteta, Bermeon aurkitzen dira beraien dokumentazio eta paperen zain, "trabatuta", oso egoera gogorretan: bizi egin behar eta lanik egin ezinean, familiei lagundu behar eta eurek bizitzeko ere lanpostu bat lortzetik urrun.
- Beraien egoera legalizatzen den bitartean, esan daiteke "esperoan" daudela, eta denbora horri, besteon moduan, probetxu bat ateratzeko eskubidea dutelako.
- Esperoan dauden momentu hori igarotzeko gazte hauek aurkitutako bideak krisialdi honetan zailago bihurtu direlako.

Proiektuaren helburuak

1

Busturialdeko gizartean pertsona migranteen partaidetza integrala bultzatzea.

Edozein dela jatorrizko herria uzteko arrazoia, pertsona migranteen bizi proiektuak Busturialdeko gizartean garatu daitezen baliabideak garatuko ditu elkarteak, gainontzeko hiritarren eskubide berdinak izan ditzaten.

2

Pertsona migranteen beharrianak asetzeko tresnak garatzea.

Harrera, bizikidetza, gizarteratze edo formakuntza proiektuen bitartez migranteen garapen indibidual, familiar, zein kolektiboa laguntzeko tresnak sortu eta garatzea izango du xede.

3

Landa garapena Busturialdeko gizartearen eta pertsona migranteen arteko lotura puntu bihurtzea.

Landa garapen proiektuen bitartez pertsona migranteentzako bizi-aukerak bilatzea, beharrianak aukera bilakatuz.

4

Pertsona migranteen ahalduntzean lan egitea.

Gizarte justu eta hobeago bat eraikitzeko erronka kolektibo honetan, pertsona migranteak aktore esanguratsu eta ezinbesteko izatea du elkarteak helburu, aniztasuna garapen sozialerako aktibo bihurtuz.

5

Lehen sektorearen sustapena eta gertuko nekazaritza bultzatzea.

Lehen sektorea biziberritu eta pertsona gazteak lehen sektoreko jardunera hurbiltzea. Lehen sektorearen garrantzia komunikatu eta gure inguruko produktuak kontsumitzeko beharrian etikoa azpimarratzea. Lehen sektoreari bultzada hau, emergentzia klimatikoari aurre egiteko beste pausu bat bihur dadin, jasangarritasun ekologikoarekin erantzunak emanaz.

Proiektuaren ardatzak



Etxebizitza (Almiken)

- ❑ Proiektuak Bermeoko Almike auzoan kokatuta dagoen Bizkaiko Elizbarrutiko Egoitza gaitu nahi du, urtebetez 8-12 pertsonaren etxebizitza egonkorra izan dadin.
- ❑ Egoitza eta oinarrizko beharrianak denbora tarte esanguratsu batez bermatuta izateak aldagai fundamental bat bakantzen du gazte hauen bizi kezketatik eta horrela, formakuntzan eta ekintzailtzan sakontzeko aukera ematen digu.
- ❑ Elkartek guztiz ekipatutako etxebizitza, janaria eta gastu amankomunen ordainketa eskainiko du, eta egoiliarak aldiz, etxearen mantenuaz eta eguneroko kudeaketaz arduratuko dira.



Nekazal lanen inguruko formakuntza

- ❑ *Lurre Hurre* elkarteak urtebeteko formakuntza programa prestatuko du pertsona migranteek nekazal lanbidea ikas dezaten.
- ❑ Elkartearen helburu nagusietakoa da Busturialdeko landa eremua dinamizatzeko alternatibak bilatzea eta ezinbestekotzat jotzen dugu baserriek tradizionalki burututako nekazal jardunaren erreleboa hartzeko proiektuak garatzea, gertuko produktuak kontsumitzea eta elikadura-burujabetza helburu izango badira.
- ❑ Formakuntza hau nekazaritzan eta pedagogian adituak diren pertsona boluntario talde batek zuzenduko du eta pertsona bat kontratatuko da gertuko jarraipena egin eta formakuntzaren bideratzaile lanetan aritzeko.



Ahalduntzean formakuntza

Nekazal lanbide formakuntzarekin batera, gizarteko esparru ezberdinetan aditu diren pertsonen laguntza bilatuko da interesekoak diren gaiak jorratzeko, besteak beste:

- Legedia, eskubideak eta betebeharrak.
- Lan mundua.
- Administrazioa.
- Gizarte antolaketa.
- Elkarte sarea ezagutzen.
- Hirugarren sektore soziala.
- Euskara.
- Kultura.
- Berdintasuna.

Saio hauen bitartez pertsona migranteak ahaldundu eta beraien eragin esparruko erreferente bihurtzea bilatzen da.



Ekintzailtza sozial eta kulturala

- ❑ Gazte migranteekin batera ekintzailtza sozial eta kulturala ardatz duten proiektuak abiarazteko espazioak sortuko dira.
- ❑ Helburua proiektu berriak erne eta migranteak gizarteko agente aktibo bilakatzea izango da, akzio puntual eta txikienetik hasita, ezberdinen arteko kooperazioan oinarritutako helburu potoloenearaino.
- ❑ Ekintzailtza espazio hauek herriaren partaidetzara irekiko ditugu ahalik eta parte-hartze eta aniztasun oparoena izateko.
 - Auzo mailan: baserri auzoetako problematikei erantzun, arazo ekologikoak tratatu, adindun jendearekin elkarrekintzak...
 - Herri mailan: herriko elkarteekin elkarlana, migranteen problematikaren kontzientziazioa, kultur trukaketak...
 - Lurralde mailan: proiektuaren hedapena, esperientzia trukaketa, pertsona migranteen eskubideen aldeko aldarrikapenak...

Formakuntza

Nekazaritza eta ingurumenari dagokionez hartuko dituzten ezagutzak eta gaitasunak

- Nekazaritza ekologikoaren** oinarrizko printzipioak azalduko zaizkie.
- Landatuko diren lursailak **nola landuko diren erakutsi**, horretarako egin beharko diren lan guztiak zeintzuk izango diren adieraziz. Traktorearekin egin beharko diren ezinbesteko lanak noiz, nola eta zergatik egiten diren azalduko zaie partaideei.
- Landatzen den labore bakoitzari egin beharreko lanak erakutsiko zaizkie. **Produktua ahalik eta hoberen ernatzea, landatzea, garatzea eta uztatzea ahalbidetzen duten era guztietako lanak** erakutsiko zaizkie.. Gainera, landaketa-distantziak, laborearen behar hidrikoak eta ureztatze egokiaren garrantzia azalduko zaie.
- Baratzean erabiliko diren **tresnak erabiltzen erakutsi eta haiekin lan egiteko bete beharreko segurtasun arauak** errespetatzea.
- Laboreen txandakatzea, elkartzea eta landaketa markoak** nolakoak izango diren adieraziko zaizkie partaideei.
- Lurzorua estaltzeko praktika** nola egin erakutsiko zaie, ureztatzeko erabiltzen den ura hobeto kontserbatu eta nekazaritzarako interesik ez duten belarrak kontrolatzeko. Gaur egunean urak munduan daukan garrantziari buruz hitz egingo zaie.
- Izurrite eta gaixotasunen kontrola naturarekin era arduratsu baten** egitea.
- Etxean sortzen duten **hondakin organikoekin kalitatezko konposta** egiten ikasiko dute. Gainera, bestelako ongarri organikoak egiten erakutsiko zaie.
- Momenturen baten sortu ahal diren baratzeako **produktu soberakinekin barazki kontserbak nola egin** azalduko zaie.

Zeharkako kompetentziak

- Talde lana.
- Gatazken konponketa.
- Autonomia eta eguneroko lanarekiko ardura.
- Zereginen planifikazioa lortu nahi dituzten emaitzak lortzeko.
- Erabakiak batera hartzea.
- Erantzunkidetasuna.

Metodologia

- Monitore lanetan arituko den pertsonaren bitartez.
- Eduki ezberdinak lantzeko tailerren bitartez.
- Zeharkako kompetentziak lantzeko dinamikak diseinatuz.
- Eguneroko lanean praktika.

Badaukagu bide bat eginda, baina baita erronkak aurretik ere

Proiektuaren indarguneak

- Lan talde sendo eta konprometitu bat
- Pertsona migranteekin erlazioa, ezagutzen ditugu, badakigu zelan bizi diren.
- Gure ekosistemako aliatuekin harremana, eta kontaktu batzuk eginda.
- Pertsona migranteen harrera eta laguntzarekin zerikusia duten jardueran esperientzia.
- Nekazaritza.


Erronka nagusiak

- Eragile ezberdinek ekimen honen aldeko apustua egitea.
- Proiektuak dituen helburuak lortzeko beharrezko finantzaketa lortzea (giza baliabideak eta materialak bermatzeko).
- Erabilera gabeko lurren jabeek lurak ekimen honetarako uztea.
- Etengabeko ekina lortzea.
- Guzti hau bideratzeko eratu behar den sare konplexua antolatzea..

Aliatu bila ari gara

Baditugu batzuk buruan eta hasi gara harreman batzuk ereiten...

- **Finantzaketan**, jarduera aurrera eramateko behar diren baliabideak lortzeko.
- **Babesa eta laguntza tekniko eta juridikoan**, aurrera eramango ditugun jarduerak zuzentasunez egiteko.
- **Proiektuko jarduera aurrera eramaten (lurrak lortzea, landarea lortzea, ortuarien banaketa...).**
- **Bestelako laguntza material eta inmaterialarekin** (egoitza, ekintzak egiteko lekua, jarduera aurrera eramateko materiala eta tresnak, etab).





Eskerrik asko



Lurre Hurre, etorkizuna ereiten 2020